



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko martxoaren 6a

22. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-25/LEY-00015. Foru-lege proiektua, Zientziari eta Teknologiar buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duena. Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/MOC-00036. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gaita-irakaskuntza ezar dezan Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalean eta/edo Tuterako Musika Eskola Kontserbatorioan-Fernando Remacha Udal Kontserbatorioan. Eneka Maiz Ulaiar andreak aurkeztu du (9. or.).
- 11-26/MOC-00038. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Segurtasun Batzordea urgentziaz deitu dezan, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean ezarritako polizia-eredua garatzeko beharrezkoa den foruzainen muga desblokeatzeko. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (11. or.).
- 11-26/MOC-00041. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita publiko bihurtzen diren zentrozen beharrezko erantzute aldera Nafarroako Autonomia eta Garapenerako Agentziaren egiturari egin beharkeko liratekeen aldaketak azter ditzan eta aurrekontuan sar ditzan. EH Bildu Nafarroa eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu du (12. or.).
- 11-26/MOC-00043. Mozioa, zeinaren bidez Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita desazkunde-politikei buruzko foru-estrategia garatu dezan 12 hilabeteko epean. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (13. or.).
- 11-26/MOC-00046. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru-erkidegorako ordainsari-berdintasunari buruzko estrategia integrala taxutu eta onetsi dezan gehienez ere sei hilabeteko epean. María Isabel García Malo andreak aurkeztu du (14. or.).
- 11-26/MOC-00029. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehenbailehen eska dezan Nafarroa sartzeko su-gorriaren kontrako bakteriofagoen salbuespeneko baimenean eta fruta pipita-dunerako talka-planean. Mozioa erretiratzea (15. or.).

- 11-26/MOC-00028. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako familiak animatzen baititu seme-alabak hezkuntza-sare publikoan matrikulatu ditzaten, sare horretako edozein hizkuntza-eredutan matrikulatu ere, 2026-2027 ikasturterako aurreinskripzioa eta matrikula egiteko heldu den prozesuan. Hezkuntza Batzordeak ezetsi du (16. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-26/POR-00089. Galdera, Europar Batasunarekin Lotutako Gaietarako Konferentziaren azken Osoko Bilkurari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (17. or.).
- 11-26/PES-00063. Galdera, Nafarroan dauden eta Estatuaren jabetzakoak diren etxebizitzetara buruz Zorua-ren Enpresa Entitate Publikoak emandako txostenari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (17. or.).
- 11-26/PES-00064. Galdera, Leitza Udalerriko Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroko datuei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (18. or.).
- 11-26/PES-00065. Galdera, Antxon Alonsorekin eta Justo Vicente Pelegrinirekin 2020ko urriaren 20an izandako bileran hartutako oharrei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (19. or.).
- 11-26/PES-00066. Galdera, Nafarroako Gobernuaren Turismo Zuzendaritza Nagusiaren turismo-jarduere-tako langile ofizialen erreklamazioei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (20. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-26/ACOP-00007. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta (21. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-25/LEY-00015. Foru-lege proiektua, Zientziari eta Teknologiarri buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duena

UNIBERTSITATE, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALEKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 157.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak Zientziari eta Teknologiarri buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proiektuari buruz onetsitako irizpena. Foru-lege proiektua hori 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

IRIZPENA

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak onetsia 2026ko otsailaren 27an eta martxoaren 3an egindako bilkuretan.

Foru-lege proiektua, Zientziari eta Teknologiarri buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duena

ZIOEN AZALPENA

Zientziari eta Teknologiarri buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea onestearekin ezarri da zer bideri jarraitu behar zaion, geure komunitatean, I+G+B arloan, eremu publikoan nahiz pribatuan. Foru-lege hori aplikatzearen ondorioz sortu dira Berrikuntzaren Behatokia eta I+G+B arloko Aholku Kontseilua, besteak beste. Halaber, Nafarroako I+G+B Sistemako Eragileen Erregistroa abiarazi da, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren otsailaren 28ko 2E/2020 Foru Aginduaren bidez, zeinaren

bidez arautzen baita Nafarroako I+G+B sisteman integratutako exekuzioko eragileen egiaztapenerako prozedura eta eragile horien inskripzioa erregistro publikoan. Hala, ahalbidetu zen Nafarroako I+G+B sistema antolatu eta koordinatu bat izatea.

Aipatutako foru-lege horrek indarra hartu ondotik metatutako eskarmentuak erakutsi du zein garrantzitsua den araudi bizi bat izatea, lagun egiten diona ezagutzaren eta berrikuntzaren bilakaerari. Eraberritze honen helburua da erdietsitako lorpenak finkatzea eta, era berean, sistema behar diren lanabesez hornitzea, etengabe eguneratua izan dadin.

Eraberritze honen oinarria da ikerketaren eta berrikuntzaren ikuspegi zabalagoa eta barneratzaileragoa, honela ulertuta horiek: sistematikoki egindako sormen-lana, jakintza-arlo guztietan jakintzaren bolumena areagotzeko egiten dena, barne hartuta gizakiarekin, kulturarekin eta gizartearekin lotutakoak, bai eta hori aplikatzea ere, balio publikoa, soziala, kulturala, ingurumenekoa eta ekonomikoa sortze aldera.

Hori horrela, Nafarroako I+G+B sistema eremu anitza da, barne hartzen dituena zientzia esperimentalak eta teknikak, bai eta gizarte- eta giza-zientziak ere, koherente izanik garai honetako erronkekiko, jasangarritasun ekonomiko, sozial eta ingurumenekoarekiko eta desberdinkeriak murrizteko helburuarekiko, zeinak jasota baitaude ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legean bertan.

Ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea onetsienez geroztik, Nafarroako I+G+B sistemak aurrera egin du, eta osatu egin da, gaur den horretara iritsi arte: funtsezko sistema bat, Nafarroan I+G+B bultzatzeko eta haren bikaintasuna bilatzeko, non beste eragile batzuen artean, bai baititu bi unibertsitate, osasun ikerketarako institutu bat, hiru ikerketazentro eta sei zentro teknologiko, eta horiei gehitzen zaizkie, jada, enpresen I+G+B arloko hamar unitate eta hogeita bat entitate bakan, denek ere beren

ezaugarri eta jarduerak dituztela. Horregatik, orain, inportantea da hausnartzea eragile horiek bete dezaketen eginkizunaz eta horiek antolatzeke moduz, ahalbidetu dadin I+G+b sistema dinamikoago bat, kohesionatuagoa eta gizartean eragin handiagoa duena.

Horrenbestez, foru-lege hori aldatuz, aukera ematen da entitate bakanen azpikategoriak egiteko, erregelamendu bidezko garapenaren bidez, eta, hala, posible izanen da Nafarroako I+G+B sistema arautzea errealitateari gehiago lotuta.

Foru-legerako jaso diren aldaketetako bat loturik dago emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzearekin, emakumeen desberdinkeria-egoerak ezabatzearekin, eta, kasua bada, emakumeen eta haien presentziaren diskriminazioa ezabatzearekin, zientzia- eta berrikuntza-jardueretan, erabakitze-organoetan eta lan-baldintzen arloan. Berdintasun-arloko araudia asko aldatu da, bai estatuan, bai Nafarroako Foru Komunitatean. Estatu-mailan, azpimarratzekoa da 2/2024 Lege Organikoa, abuztuaren 1ekoa, emakumeek eta gizonek ordezkari-tza parekidea eta presentzia orekatua izatekoa, bai eta urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuan eta urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretuan sartutako erregelamenduzko garapenak ere. Nafarroako Foru Komunitatean, nabarmentzekoa da 17/2019 Foru Legea onetsi izana, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa. Europan ere aurrera egin da berdintasun-printzipioa eta genero-ikuspegia sar daitezen zientziarekin, ikerketarekin eta berrikuntzarekin lotutako jardueretan. Horregatik, inportantea da lan egitea inklusioa eta dibertsitatea hobetu daitezen ikuspuntu guztietatik.

Era berean, denboraren joanak berak eskatzen du Nafarroako I+G+Brako inbertsio-helburuak eguneratzea, eta dugun errealitatearekin bateratzea horiek, zeina jaso baita Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Plan berriaren jarraipenean.

Azkenik, beste aldaketa batzuk ere egiten dira, helburu dutenak egungo foru-legearen idazketa fintzea, araua hobeki aplikatu dakion Nafarroako I+G+B sistemari. Aldaketa horien bidez, zenbait planteamendu sartu nahi dira, lagungarri izaten ahal direnak I+G+B gehiago eta eragin handiagoa sortzeko.

Aldaketa honen bidez, Nafarroako Foru Komunitateak berresten du zientziarekin, teknologiarekin eta berrikuntzarekin duen konpromisoa, motorrak baitira aurrerapena izan dadin ekonomian, gizartean eta ingurumenean, eta bertako politikak bideratuko dira bikaintasunera, berdintasunera, jasangarritasunera eta balioa sortzera, Nafarroako gizarte guztiarentzat.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da 15/2018 Foru Legea, ekainaren 27koa, Zientziari eta Teknologiari buruzkoa.

Bat. Aldatu egiten da 3. artikulua 3. apartatua, eta hau da testu berria:

“3. Nafarroako I+G+B sistema (SINAI) antolatzeko eta dinamizatzea, jakintzaren sorrera, garapena, hedapena eta aprobetxamendua sustatzeko kalitate-, berdintasun- eta demokrazia-parametroetan, bai eta jakintzaren ekoizpenean eta haren emaitzetan parte hartzea ere, Nafarroako sektore publikoarekiko, entitate sozialekiko eta sektore produktiboarekiko kooperazioa handituz”.

Bi. Aldatu egiten da 3. artikulua 7. apartatua, eta hau da testu berria:

“7. Ikasketak zientifiko, teknologiko, sozial eta humanistikoetako prestakuntza sustatzea maila guztietan, lanbide-heziketan, unibertsitatean eta doktoregoetan, gizartearen beharrak asetzen eta orekatzen laguntze aldera, indar berezia eginda emakumeek STEM (zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematika) ikasketetara sarbidea izan dezaten”.

Hiru. Aldatu egiten da 3. artikulua 10. apartatua, eta hau da testu berria:

“10. Lankidetzak sustatzea, elkarlan publiko-pribatua sendotzea eta ikerketako jakintzaren transferentzia egiten laguntzea, Nafarroako I+G+B sistematik (SINAI) sare produktibora, sare sozialera eta gizartera, oro har”.

Lauro. Aldatu egiten da 3. artikulua 13. apartatua, eta hau da testu berria:

“13. Sustatzea koordinatu daitezela zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-politikak eta -planak Estatuko autonomia-erkidegokoetakoekin, Administrazio orokorrekoekin eta Europar Batasunekoekin.

Bost. Aldatu egiten da 3. artikulua 18. apartatua, eta hau da testu berria:

“18. Talentuaren sorrera, atxikipena eta itzule-ra erraztea behar diren neurriak hartuz honako arlo hauetan: laguntza logistikoa, ekintzailatza eta kontratazioaren sustapena”.

Sei. Aldatu egiten da 6. artikulua 2. apartatua, eta hau da testu berria:

“2. Honako hauek dira Nafarroako I+G+B sistemako (SINAI) eragileak: I+G+B arloan, exekuzio-, dinamizazio-, hedapen-, dibulgazio-, finantzaketanahiz koordinazio-eginkizunak betetzen dituzten eragile publiko eta pribatu guztiak”.

Zazpi. Aldatu egiten dira 7. artikulua 1. idatz-zatiaren a) eta e) letrak, eta hauek dira testu berriak:

“a) Ikerketa-zentroa: oinarrizko eta bikaintasunezko ikerketako erakundea, bere jarduerak interes zientifikoko esparruetan egiten dituena, jakintza-arlo guztietan, barne hartuta gizarte- eta giza zientziak”.

“e) Entitate bakanak: entitateak, funtsezko egin-kizun gisa dutenak gizartean sustatzea heda daitezten ezagutza zientifikoa eta I+G+B arloaren emaitzak, eta, orobat, prestakuntza izatea zientzia-, matematika-, ingeniari- eta teknologia-jakintzako arloetan, dinamizatzea berrikuntzaren ekosistema, laguntzea I+G+B proiektuei, horretarako gaitasunik izanez gero, eta I+G+B arloarekin lotutako bestelako eginkizunak”.

Zortzi. Aldatu egiten da 7. artikulua 2. apartatuaren f) letra, eta hau da testu berria:

“f) Zuzendaritza-organo parekidea izatea, non izanen baita emakumeen eta gizonen presentzia orekatua, halako moduz non sexu bakoitzeko pertsonak ez diren izanen ehuneko hirurogei baino gehiago, ez eta ehuneko berrogei baino gutxiago ere. Posible izanen da ez aplikatzea parekidetasun-irizpidea eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua, jarraikiz ekintza positiboaren printzipioari, baldin emakumeak ehuneko hirurogei baino gehiago badira; betiere, justifikatu egin beharko da. Gainerako ez-betetzeak justifikatu egin beharko dira, muntazko arrazoi objektiboen bidez, behar bezala arrazoiturik. Halakoetan, ekintza-plan bat ezarri beharko da, helburu duena betetzea ordezkari parekidea eta presentzia orekatua”.

Bederatzi. Aldatu egiten da 8. artikulua 2. apartatuaren b) letraren 2. puntua, eta hau da testu berria:

“Bigarrena. Ardura handieneko postua —zuzendari nagusia edo antzekoa— hautatzea prozesu ireki, ez baztertzaila eta garden baten bidez, non baloratuko baitira doktore-titulua izatea zentroak lantzen duen I+G+B arloren batean, master bat enpresen zuzendaritza eta administrazioan, argitalpenak, patenteak eta arloko nazioarteko esperientzia. Eskumen hori duten zuzendaritza organoek egiten dute hautapena. Hautapen-prozesu horretan kontuan hartuko da emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioari jarraitzea, eta eragileek frogatu beharko dute ezen, postu horiek betetzeko izangaien zerrendan, sexu bakoitzeko pertsonak ez direla ehuneko hirurogei baino gehiago, ez eta ehuneko berrogei baino gutxiago ere,

salbu eta muntazko arrazoi objektiboak daudenean, behar bezala justifikatuak. Posible izanen da ez aplikatzea emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa, jarraikiz ekintza positiboaren printzipioari, baldin emakumeak ehuneko hirurogei baino gehiago badira; betiere, justifikatu egin beharko da. Unibertsitateek ez dute betebehar hori bete beharrik izanen”.

Hamar. Aldatu egiten da 8. artikulua 2. apartatuaren c) letra, eta hau da testu berria:

“c) Berdintasunarena: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan bat izatea, araudian ezarritakoaren arabera egina, erregistratua eta aplikatua, eta bereziki honako hauen arabera: 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa eta hura garatzen duen araudia; hots, 901/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, planak eta horien erregistro arautzen dituena eta aldatzen duena maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua, laneko hitzarmenak eta akordio kolektiboak erregistratzeari eta gordetzeari buruzkoa; 902/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunarena; eta 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.

Berdintasun-plana izatera behartuta ez dauden entitateentzat, emakumeen eta gizonen arteko lantxizkotasun-ekiditeko neurriak edukitzea eta gauzatzea edo borondatezko berdintasun-plan bat izatea. Bi horiek berdintasun-plana edo neurriak barne hartzen dituen eraginkortasun mugatuko erabaki gisa erregistratu beharko dira. Edonola ere, neurrien eta borondatezko berdintasun-planen exekuzioaren jarraipen-txostenak egiten dira.

Era berean, entitate guztiek izan beharko dituzte jardura-protokoloak lan esparruan geratzen diren sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren kontrako indarkeria, delitu edo bestelako jokabide, sexu-jazarpen edo sexu-arrazoiengatikoko jazarpen kasuetarako”.

Hamaika. Aldatu egiten da 8. artikulua 2. apartatuaren e) letra, eta hau da testu berria:

“e) LGTBI+ gaiarena: Sustatzea eduki dadila LGTBI+ pertsonen benetako berdintasun eraginkorra lortzeko neurrien eta baliabideen multzo planifikatu bat, zeinek barne hartuko baitu LGTBI+ pertsonen kontrako jazarpen- edo indarkeria-kasuak artatzeko jardura protokolo bat. Horretarako, negoziazio kolektiboaren bidez adostuko dira neurriak langileen legezko ordezkariarekin, Estatuko eta komunitateko legediak ezartzen duten eran”.

Hamabi. Aldatu egiten da 9. artikulua 1. apartatua, eta hau da testu berria:

“1. Nafarroako I+G+B sisteman (SINAI) I+G+B arloko jarduerak egiten dituzten exekuzioko eragile gisa akredita daitezke unibertsitateak, ikerketa zentroak, osasun ikerketarako institutuak eta zentro teknologikoak. Akreditazioa lortzeko, 7. artikuluan eskatutako baldintzak betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

a) Plantillan ikertzaile doktoreak izatea.

b) Plantillako ikertzaile doktoratuen artean, bete beharko da emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa, halako moduz non sexu bakoitzeko pertsonak ez diren izanen ehuneko hirurogei baino gehiago, ez eta ehuneko berrogei baino gutxiago ere. Posible izanen da ez aplikatzea emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa, jarraikiz ekintza positiboaren printzipioari, baldin emakumeak ehuneko hirurogei baino gehiago badira; betiere, justifikatu egin beharko da. Gainerako ez-betetzeak justifikatu egin beharko dira, muntzako arrazoi objektibo bidez, behar bezala arrazoiturik. Halakoetan, ekintza-plan bat ezarri beharko da, helburu duena presentzia orekatua betetzea.

c) I+G+B arloko proiektuak egitea.

d) Nazioarteko I+G+B arloko proiektuetan parte hartzea”.

Hamahiru. Aldatu egiten da 9. artikulua 3. apartatuaren a) letraren 1. puntua, eta testu hau izanen du:

“1. Nazioarteko aholkularitza-batzorde zientifiko bat izatea, zentroaren balorazio bat egiten duena urtero, bermatuta osaera anitza izanen duela, entitateak lantzen dituen jakintza-arloekin bat datorrena, eta barne hartuta, hala dagokionean, gizarte- eta giza zientzietako espezialistak”.

Hamalau. Aldatu egiten da 11. artikulua izenburua, eta hau izanen da berria:

“11. artikulua. Entitate bakanak: dinamizazio-, hedapen-, dibulgazio-, finantzaketa- eta exekuzio-eginkizunetarako eragileak”.

Hamabost. Aldatu egiten da 11. artikulua 1. apartatuaren d) letra, eta hau izanen da testu berria:

“d) Berrikuntza-ekosistemaren dinamizazioko eta/edo finantzaketako bestelako jarduerak egitea”.

Hamasei. Bi letra berri gehitzen zaizkio 11. artikulua 1. apartatuari, honako testu honekin:

“e) I+G+B proiektuetan parte hartzea, horretarako gaitasunik izanez gero.

f) I+G+B laguntzeko beste jarduera batzuk”.

Hamazazpi. 3. apartatu berri bat gehitzen zaio 11. artikuluari, honako testu honekin:

“3. Entitate hauek azpikategorietan sailkatu ahal izango dira egiten dituzten jardueren arabera, erregelamenduaren bitartez, hau da, Nafarroako I+G+B sisteman, INAIIn, integratutako exekuzioko eragileak nola akreditatu behar diren eragile horiek erregistro publikoan nola inskribatu behar diren arautzen duen erregelamenduaren bidez egoki jotakoen artean”.

Hemezortzi. Aldatu egiten da 12. artikulua 1. apartatua, eta hau da testu berria:

“1. Nafarroako I+G+B sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen koordinatzailea den eragilea arduratzen da sistemaren exekuzioko eragile guztien koordinazioaz, Nafarroan zientzia, teknologia eta enpresaren arteko erlazioa dinamizatzeaz eta Nafarroako gizartearen esparru guztietan zientzia, ikerketa, berrikuntza eta teknologiaren hedapena egiteaz”.

Hemeretzi. Aldatu egiten da 12. artikulua 4. apartatuaren h) letra, eta testu hau izanen du:

“h) Nafarroako eragile, entitate publiko eta enpresen arteko elkarlaneko eta transferentziarako I+G+B proiektuak koordinatzea, eta elkarlan publiko-pribatua sendotzea horrela”.

Hogei. Aldatu egiten da 13. artikulua 2. apartatua, eta hau da testu berria:

“2. Departamentu horrek kudeatuko du erregistro hori, eguneraturik eta osorik izatearren Nafarroan I+G+B arloan aritzen diren entitateen zerrenda, eta bermatuko du lege honek ezartzen dizkieten betebeharrak betetzen eta gordetzen dituztela, baita erregelamenduz ezarritakoak ere”.

Hogeita bat. Aldatu egiten da 17. artikulua 1. apartatuaren j) letra, eta testu hau izanen du:

“j) I+G+B arloko bi pertsona, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeko eskubidea duten sindikatuek adostasunez izendatuak”.

Hogeita bi. Aldatu egiten da 17. artikulua 2. apartatua, eta hau da testu berria:

“2. Aipatu pertsonak izendatzerakoan, errespetatu egin behar da emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa, halako moduz non sexu bakoitzeko pertsonak ez diren izanen ehuneko hirurogei baino gehiago, ez eta ehuneko berrogei baino gutxiago ere”.

Hogeita hiru. Aldatu egiten da 17. artikulua 5. apartatua, eta hau da testu berria:

“5. Nafarroako I+G+B arloko Aholku Kontseiluko kide izatea ez da ordainduko, baina joan-etorrien eta egonaldien gastuak ordainduko zaizkie artikulu honen 1. apartatuaren b) eta c) letretan aipatzen direnei, baldin eta bizi badira Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo”.

Hogeita lau. Aldatu egiten dira 21. artikulua 1. apartatuaren a) eta ñ) letrak, eta testu hau izanen dute aurrerantzean:

“a) Zientziako eta ikerketako talentua sustatzeko neurriak, honako hauen bidez: doktorego aurreko eta ondoko bekak, industriako doktoregotarako laguntzak, ikertzaileen mugikortasunerako laguntzak eta I+G+B proiektuak egiteko ikertzaileak eta teknikariak kontratatuzko laguntzak”.

“ñ) Talentua Nafarroako Foru Komunitatera erakartzeko eta fidelizatzeko neurriak, laguntza logistikoko, ekintzailetzarako eta kontratazioa laguntzeko sistemekin”.

Hogeita bost. o) eta p) letra berriak gehitzen zaizkio 21. artikulua 1. apartatuari, eta testu hau izanen dute:

“o) Lanbide-karrera eta lanbide-mugigarritasuna sustatzeko neurriak Nafarroako I+G+B sistemako eragileetako langile zientifiko-teknikoentzat”.

“p) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erosketa publiko berritzaileak egin ditzan sustatzeko eta babesteko neurriak”.

Hogeita sei. Kendu egiten da 22. artikulua 2. apartatua, eta kendu egiten da artikulu horretan gelditzen de paragrafo bakarraren 1. zenbakia.

Hogeita zazpi. Aldatu egiten da 27. artikulua 3. apartatua, eta hau da testu berria:

“3. Deialdi horien bidez, gizartearen behar eta erronkei erantzuten dieten eta Zientzia, teknologia eta berrikuntza planean ezarrita dauden eragileak, ikertzaileak, I+G+B arloko proiektuak edo I+G+B arloko azpiegiturak finantzatu dira, eta teknologia eta ikerketaren alorreko enpleguaren lan-egonkortasuna eta hazkundea sustatuko dira horrela”.

Hogeita zortzi. Aldatu egiten da 27. artikulua 4. apartatua, eta hau da testu berria:

“4. Jakintza transferentzia sustatzeko, laguntzen bidez enpresen, zentro teknologikoen, ikerketa-zentroen, osasun ikerketako institutuen, Osasun Departamentuko zentron eta unibertsitateen arteko baterako ikerketa proiektuak sustatuko dira, haiei esparru guztietan egonkortasuna ziurtatzea ere helburu izanda”.

Hogeita bederati. Aldatu egiten da 28 artikulua, eta testu hau izanen du:

“28. artikulua. Nafarroako I+G+B sistemako (SINAI) eragileentzako laguntza-deialdiak, errendimenduaren arabera”.

1. Nafarroako I+G+B eragileen sistemako (SINAI) iraunkortasuna segurtatzeko, I+G+B proiektuetarako, ekipamenduko inbertsioetarako eta hedapen eta dibulgazio zientifikoko jardueretarako laguntzen deialdiez gain, beste deialdi batzuk ezartzen ahalko dira, errendimenduaren arabera laguntza oinarritzeko deialdiak, ekonomikoa ez den jarduera osorik ere finantzatzeko, zentroaren bikaintasuna eta ikerketarako eta transferentziako gaitasuna kontuan hartuta.

2. Nafarroako I+G+B sistemako (SINAI) eragileen bikaintasunerako orientazioa segurtatzeko, deialdietan, balorazio irizpide gisa erabiliko dira bikaintasun eta hobekuntza adierazleak, honako hauek jasoko dituztenak, besteak beste: plantillako doktore kopurua, argitalpenak, patenteak, sortutako oinarriko teknologikoko enpresak, industriarekin I+G+B arloan izandako proiektuen fakturazioa, lortutako Europako finantzaketa, eta zientzia, teknologia eta berrikuntzarako indarreko planean ezarritako gainerako adierazleak”.

Hogeita hamar. Aldatu egiten da 30. artikulua 3. apartatua, eta hau da testu berria:

“3. Gutxienez lau urtekoa izanen da planaren indarraldia”.

Hogeita hamaika. 6. apartatu berri bat gehitzen zaio 32. artikuluari, eta testu hau izanen du:

“6. Administrazio publikoak berrikuntza bultzatzea enpresaren sektorean, erosketa publiko berritzailea erabiliz tresna dinamizatzaile gisa”.

Hogeita hamabi. Xedapen gehigarri bakarraren testua aldatzen da, eta hau da testu berria:

“Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroako I+G+B arloko inbertsio-helburuak.

Botere publikoen jarduketa gidatzeko xedez, honako inbertsio-helburu hauek ezartzen dira Nafarroan I+G+B arlorako:

Nafarroan, I+G+Brako bideratutako inbertsio-helburua 2030. urterako: BPGaren % 3.

Nafarroan, sektore publikoan I+G+Brako bideratutako inbertsio-helburua 2030. urterako: BPGaren % 1.

Nafarroan, sektore publikoan I+G+Brako bideratutako inbertsio helburua 2030. urterako: Nafarroako Aurrekontu Orokorren % 8.

Azken helburu hori taula honetan xehatzen da:

I+G+B plangintza, datu errealeen arabera eta 2030erako helburuaren arabera.	2019	2023	2030
Unibertsitateen portzentajea Nafarroako Aurrekontu Orokorretan	1,87	1,92	2,00
I+G+Baren sustapenerako portzentajea Nafarroako Aurrekontu Orokorretan	1,44	1,77	2,00
Estatuak eta EBk Nafarroako I+G+Brako egindako ekarpenen portzentajea, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan	2,45	3,39	3,00
Zerga-deskontuaren portzentajea Nafarroako Aurrekontu Orokorretan	1,01	0,82	1,00
Guztira, sektore publikoan I+G+Brako bideratutako inbertsio helburua, Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean	6,77	7,90	8,00”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea:

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**11-26/MOC-00036. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
 tzen baita gaita-irakaskuntza ezar dezan Sarasate Musika Kon-
 tserbatorio Profesionalean eta/edo Tuterako Musika Eskola Kon-
 tserbatorioan-Fernando Remacha Udal Kontserbatorioan**

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gaita-irakaskuntza ezar dezan Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalean eta/edo Tuterako Musika Eskola Kontserbatorioan-Fernando Remacha Udal Kontserbatorioan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako Eneka Maiz Ulaiar andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Nafar gaita edo dultzaina Nafarroako kultura-ondarearen tresna herrikoi antzinakoenetako eta adierazgarrienetako bat da. Gutxienez XVI. mendeaz geroztik dago dokumentatuta haren presentzia, eta foru-komunitateko gizarte-, jai- eta erritubizitzara etengabe lotuta dagoen musika-tradizio baten parte da. Mendeetan zehar, gaitak dantzak eta ospakizunak girotu ditu, eta Nafarroako espa-

zio publikoko ezinbesteko soinu-elementu bihurtu da.

Erdi Arotik, mihi bikoitzeko instrumentuek –gaitak kasu– lotura estua izan dute kalearekin eta dantza herrikoiekin, beste aerofono batzuek ez bezala, eremu kultuetara eboluzionatu baitzuten. Nafarroan, funtzio herrikoi horrek tresnaren iraupen historikoa ahalbidetu zuen, eta gizarte-testuinguru desberdinetara nortasun propioa galdu gabe egokitzea.

Nafar gaitaren bilakaera ez zen estatikoa izan. XIX. mendetik aurrera, musika modernizatzeko prozesu bat gertatu zen, eta, horren amaieran, gaiterak talde egonkorretan antolatu ziren, solfeoa txertatu zen, errepertorioa garatu zen eta musika tradizionalaren barruan gaita musika-tresna petopotzat ezarri zuten funtsezko figurak errotu ziren. XX. mendearen erdialdean gainbehera egin ondoren, 1970eko hamarkadan hasitako susperraldiak eta, ondoren, laurogeiko hamarkadatik aurrera musika-eskoletan tresna horren irakaskuntza ezartzeak bere hedapena eta normalizazioa ahalbidetu dute gaur egunera arte.

Ibilbide historiko, etengabe eta dokumentatu horrek gaita Nafarroako musika-ondarearen funtsezko elementu bihurtzen du, eta oinarri ematen dio haren aintzatetsi, babestu eta antolamendu akademikoa ezarri beharri.

Nafarroan, Erdi Aroko tenpluetan gaita-eskulturrak badauden arren, agertzen diren idatzizko lehen dokumentu-erreferentziak XVI. mendekoak dira. Corpusaren prozesioan parte hartzeagatik Lizarrako Udalak 1549an gaitero bati egindako ordainketa da horietako bat. XVI. mendearen amaieran eta XVII. mendean zehar, Tuteran, Fiteron eta beste herri batzuetan izan zuen presentzia dokumentatu zen, betiere dantza eta jai-ekitaldien akonpainamenduari lotuta.

XVII. mendean zehar gaita Nafarroako lurraldearen zati handi batean hedatu zen, eta dantza herrikoia funtsezko tresna gisa sendotu zen. XVIII. eta XIX. mendeetan zehar, sanferminak Nafarroako hainbat herritatik etorritako gaiteroen topagune bihurtu ziren, gaitaren proiektzioa eta ospea indarturik. 1860an, Iruñeko egungo erraldoien sorrerarekin, instrumentuaren aro modernoa hasi zen: gaiteroak talde egonkorretan antolatzen hasi ziren, bazekiten solfeoa, eta beren errepertorioa dantzarekin hertsiki lotutako musikatik harago zabaldu zuten.

Era berean, XIX. mendearen amaieraz geroztik eta XX. mendean zehar, nafar gaitak harreman estua eta jarraitua izan zuen Nafarroako ezin konta ahala musika-bandarekin, eta kontzertu, ekitaldi ofizial eta baterako musika-proiektuetako musika-tresna laguntzaile gisa integratu zen. Elkarrekintza horrek musika akademikoaren eta tradizio herrikoia arteko elkarrizketa erraztu du, instrumentuaren interpretazio-testuinguruak eta errepertorioa zabalduz.

XX. mendea kontraste-aldia izan zen. 1924an, Iruñean, gaitero-lehiaketa garrantzitsu bat egin zen, eta horrek agerian utzi zuen Nafarroan zegoen maila handia. Gerra Zibilaren ondoren, ordea, gaitajole ugari desagertu ziren, eta instrumentuaren transmisioa hainbat hamarkadatan familia-eremura mugatuta geratu zen. 1970eko hamarkadan berreskuratze-prozesu bat hasi eta laurogeiko hamarkadaz geroztik errotu egin zen: gaita musika-eskoletan eta akademietan irakatsia izaten hasi zen pixkanaka, eta horrek gaur egun ikusten den hedapen- eta egonkortasun-egoera ekarri zuen.

Gaita-irakaskuntzak gaur egun eskaintzen dituen datuei erreparatzen badiegu, eta Hezkuntza Departamentuak emandako informazioa oinarri hartuta, nafar gaita irakasten duten 23 udal musika-eskola daude: 2024-2025eko ikasturtean 206 ikaslek hartu zituzten gaita-eskolak, 16 irakasleren eskutik.

Bestalde, Nafarroan 25 musika-eskola eta akademia pribatu baino gehiago daude; atzean tradizio handia dute, gaita irakasten diete 130 ikasle baino gehiagori, baina ez daude Hezkuntza Departamentuan erregistratuta.

Guztira, hala udal-eskoletan nola pribatuetan eta akademietan eskolak hartzen dituzten 340 bat gaiteroz ari gara.

Halere, datu horiek gorabehera, gaur egun ezin da titulazio ofizialik lortu Nafarroan, gaita ematen duen ikastetxe bakar batek ere ez baitu izaera arauturik. Oso esanguratsua den datu bat: foru-komunitatean gaita titulazioa duten 5 irakasle baino ez daude. Eta 5 horiek titulua Kataluniako goi-mailako

gradu batean lortu zuten, 2009an egin zen ezohiko deialdi batean.

Estatuan, abenduaren 22ko 1577/2006 Errege Dekretuak musikako lanbide-ikasketen curriculumaren oinarritzko alderdiak finkatzen ditu, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arauturikoak. Eta Nafarroako Foru Komunitatean, martxoaren 19ko 21/2007 Foru Dekretuak musikako lanbide-ikasketen curriculumaz ezartzen du. Ikasketa horiek Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan arautzen dira. Dekretu horren 7.1 artikuluan musikako lanbide-ikasketetako espezialitateak ezartzen dira, haize-instrumentuenak barne: zeharkako flauta, oboea, klarineta, fagota eta saxofoia (zurezko haize-instrumentuak); tronpa, tronpeta, tronboia eta tuba (metalezko haize-instrumentuak); eta, beste alde batetik, txistua. Zoritxarrez, gaita ez dago curriculum ofizialean sartuta. Baina, dekretuaren 7.2 artikuluan adierazten denez, Hezkuntza Departamentuak beste espezialitate batzuk ezartzeko baimena ematen ahalko du.

2026ko urtarrilaren 28an, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean lan-bilera bat egin zen, eta bertan, Nafarroako gaiteroen ordezkari batzuek agerian utzi zuten beharrezkoa zela musikako gradu profesionalak eta goi-mailakoak akademikoki antolatzea Nafar Gaita-Dultzaina espezialitatean. Adostasun zabala egon zen horren inguruan.

Horregatik guztiagatik, funtsezkoa da Nafarroan gaita ikasteko prestakuntza-ibilbide integral bat ezartzea, gure instrumentuari prestigioa emateko, musika-maila igotzeko eta gure erkidegoan irakasle kualifikatu eta akreditatuak izan ditzagun. Denon ardura da gaitaren espezialitateak bilakaera akademikoa izatea, gure kulturaren eta folkloreak iragana, oraina eta etorkizuna uztartuz. Gure esku dago Nafarroa berriro aitzindari izatea gaita/dultzaina garatzen.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du:

1. Nafarroako Foru Komunitateko musikako lanbide-ikasketetako curriculumaz ezartzen duen martxoaren 19ko 21/2007 Foru Dekretua aldatuz gaita-irakaskuntzako gradu profesional bat sortzera Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalean eta/edo Tuterako Musika Eskola Kontserbatorioan-Fernando Remacha Udal Kontserbatorioan, 2026-2027ko ikasturterako. Horretarako, eta 2027-2028ko ikasturtean modu eraginkorrean ezarri ahal izateko, beharrezkoa izanzen da 21/2007 Foru Dekretuaren aldaketa onestea ikasturte akademiko horri dagokion musikako lanbide-ikasketetara sartzeko probak arautzen dituen foru-agindua baino lehenago; horre-

la, nafar gaitaren espezialitatea onarpen-prozedura ofizialean sartzen dela bermatuko da.

2. Plangintza- eta kalendarizatzeko-lanak egitera espezialitatea Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan progresiboki ezartzeko, eta mozioa onartu eta gehenez ere hiru urteko epean martxan jarriko dela bermatzera.

Iruñean, 2026ko otsailaren 19an

Foru-parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-26/MOC-00038. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak premiatzen baita Segurtasun Batzordea urgentziaz deitu dezan, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean ezarritako polizia-eredua garatzeko beharrezkoa den foruzainen muga desblokeatzeko

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak premiatzen baita Segurtasun Batzordea urgentziaz deitu dezan, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean ezarritako polizia-eredua garatzeko beharrezkoa den foruzainen muga desblokeatzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

El Sadar-en gertatu berri diren gertakariak kezka sozial handia sortu dute. Poliziaren jorkamoldea, distentsioari eta segurtasunaren erabateko bermeari lagundu beharrean, istiluak eta lesioak eragin zizkien bai zaleei bai esku hartu zuten agenteei, eta arrisku-egoera bat proiektatu zuen, segurtasun-dispositibo batek bete behar duen helburuaren guztiz kontrakoa, are gehiago joan den larunbatean hainbeste jende bildu zuen kirol-ikuskizunaren moduko batean.

Horretarako, ezinbestekoa da hurbileko polizia bat, gertuko, lurraldean errotua eta ezagutza sozial sakonekoa. Helburu horrekin, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legeak Foruzaingoaren izaera ezartzen du, eta honela definitzen du: polizia integrala eta erreferentziazkoa, herritarren segurtasunaz ere arduratuko dena Foru Komunitatearen eskumen-eremuan. Halatan, bereziki garrantzitsua da zuzeneko ikuskizunetako eta kirol-ekitaldietako segurtasuna eraginkortasunez bere gain hartzea, non hurbiltasuna eta lurralde-sustraitzea funtsezko elementuak baitira esku-hartze proportzional eta eraginkor baterako.

Jakina denez, eredu hori erabat garatzeko, trafikoko eskumena egiaz bere gain hartzea barne, ezinbestekoa da Nafarroako Foruzaingoaren egungo foruzain-muga desblokeatzea. Hori dela eta, ebazpen-proposamen hau proposatzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuia premiatzen du Segurtasun Batzordea urgentziaz deitu dezan, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean ezarritako polizia-eredua garatzeko beharrezkoa den foruzain-muga desblokeatzeko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean Foruzaingoarentzat ezarritako eredu inte-

grala eta erreferentziazkoa defenda dezan. Horretarako, exijitzen du Segurtasun Batzordean urgentziaz desblokea dadin beharrezkoa den foruzain-muga Nafarroan Foruzaingoaren lidergoa bermatu dezan, bereziki zuzeneko ikuskizunetan eta kirol-ekitaldietan herritarren segurtasunari dagokionez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 24an

Foru-parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-26/MOC-00041. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita publiko bihurtzen diren zentroyen beharrezkoei erantzute aldera Nafarroako Autonomia eta Garapenerako Agentziaren egituraren egin beharko liratekeen aldaketak azter ditzan eta aurrekontuan sar ditzan

EH BILDU NAFARROA ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita publiko bihurtzen diren zentroyen beharrezkoei erantzute aldera Nafarroako Autonomia eta Garapenerako Agentziaren egituraren egin beharko liratekeen aldaketak azter ditzan eta aurrekontuan sar ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak 2023an argitaratu zuen iraupen luzeko zaintzei buruzko txostenaren arabera, kudeaketa publikoak oso presentzia txikia du gizarte-zerbitzuetan. Txostenak orobat dio hori oso lotuta dagoela "Ongizatearen Estatuaren laugarren zutabeak –gizarte zerbitzuak– beste sistema batzuen sendotasunaren aldean –esaterako, hezkuntza eta osasuna– daukan ahuleziarekin", (2023).

Nafarroako Gobernuia sostengatzen duten hiru talde politikoei sinatutako programa-akordioan honako neurri hau ageri da jasota: "azterlan bat egitea bizitegiak publikatzeko agenda bat ezartze aldera, lehentasuna emanez desgaitasuna dutenei arreta ematen dietenei".

Eskubide Sozialetako Departamentuak 2025ean eskatu zuen «Nafarroako Foru Komunitatean desgaitasun fisikoa eta intelektuala duten pertsonentzako arreta espezializatua emateko zentroyen kudeaketaren balizko publikazioari buruzko txostena». Azterlan hori eginda dago jada, eta ondorioztatzen du ezen, txostenean baliatu den ikuspegi juridikotik, «posible dela foru-administratioak zentro horiek zuzenean kudeatzea, lehendik dagoen Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Nafarroako Agentzia erakunde autonomoaren bidez». Izan ere, agentzia horrek zuzenean kudeatzen ditu jada 4 egoitza: El Vergel, Santo Domingo, San José eta Lur Gorri.

Txostenak, halaber, publiko egiteko agenda hori definitu eta aplikatu ahal izateko bete behar diren baldintza batzuk zehazten ditu. Mozio honen bidez, eta txostenean proposatutakoaren ildotik, aurrerapen-neurri batzuk planteatzen ditugu, hori posible egiteko.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du:

- Publikatzen diren zentzuen beharrezan aurre egite aldera Agentziaren egituraren zer aldaketa egin beharko litzatekeen azter dezan eta horretarako aurrekontua egin dezan: langileen kudeaketa, arre-

taren ebaluazioa, kontrola eta zuzendaritza eta abar.

- Langileen kolektiboa subrogatzeko zer prozesu jarri beharko litzatekeen abian azter dezan eta horretarako aurrekontua egin dezan: lanpostuak parekatzea, lan-kontratudun langile gisa integratzea, lan-baldintzak aldatzea eta abar.

- Analisi hori 2026ko ekainaren 30a baino lehen egin dezan, informazio hori eskuragarri egon dadin 2027ko aurrekontuak taxutu baino lehen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 26an

Foru-parlamentariak: Carlos Guzmán Pérez eta Javier Arza Porras

11-26/MOC-00043. Mozioa, zeinaren bidez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita desazkunde-politikei buruzko foru-estrategia garatu dezan 12 hilabeteko epean

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita desazkunde-politikei buruzko foru-estrategia garatu dezan 12 hilabeteko epean.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru-parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean egin dadila mozio hau betetzeari buruzko jarraipena.

Zioen azalpena

Klima Aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarrak oraintsu argitaratu duen Gomendio Txostenaren arabera, klima-aldaketaren fenomenoaren erroan dago gure ekoizpen- eta kontsumo-sistema. Sistema ekonomiko horrek ziurtzat eman du energia eta natura-baliabideak infinituak direla, eta haren aseazintasunean gure espeziea bera arriskuan jartzen duten mugak gainditzen ari da.

Sistema horrek nabarmen hobetu du gizateriaren zati baten bizi-kalitatea, baina planetaren osasuna kaltetu du. Materialen erauzketak, mugikortasunaren espiralak, ekonomia linealak –hori guztia erregai fosilak erretzean oinarritzen da batik bat– berotegi-efektuko gasen emisioak etengabe handitzea dakar.

Halako arazo zabal eta konplexu baten aurrean (horri gehitu behar zaizkio ekoizpen-sistema globalizatuaren inertziaren zailtasuna eta ekintza klimatikoaren premia), gure ekonomia birbideratzeko gakoa da apustu egitea desazkondearen, mugikortasun jasangarriaren, energia berriztagarrien eta material-errerabilpenaren eta -berreskurapenaren alde, eta, tresna gisa, ingurumen-fiskalitatea eta ingurumen-araudia egiaz betetzea.

Klima Aldaketaren Nafarroako Batzarrak administrazioari egindako proposamenen artean, 49.a nabarmendu nahi dugu:

49. Energiaren eta materialen erabilera murriztea. Eredugarritasun publikoa eta desazkunde-politikak.

– Energiaren eta ondasun materialen erabilera murriztea. Emisioak murriztea. Desazkunde-politikak.

– Administrazio publikoen lekukotza argiak ondasun materialen eta energiaren erabilera murrizteari dagokionez, eredu izan daitezzen eta herritarren begietan koherentzia-ariketa gisa ager daitezzen. Administrazio publikoen ekimenen adibideak ematea.

– Hiri-naturalizazioa, babesleku klimatikoaren mapa irisgarriak (aire girotuaren premia txikiagoa).

– Adimen artifizialaren (AA) erabilera ardura-tsuagoa sustatzea, energia-kostu handia baitu. AAKo garapenak finantzatzea (adibidez, I+G+B), behar bezala justifikatuta dagoenean energia-konsumoan ez dagoela aplikazio bera egiteko beste modu arrazoizkoagorik.

– Teknika garbi eta erabilgarri onenen erabilera sustatzea, sari ekonomikoaren bidez.

– Ekitaldi jasangarriei buruzko foru-dekretuaren aplikagarritasuna zabaltzea; izan ere, gaur egun makroekitaldietan baino ez da aplikatzen, eta hondakinei bakarrik egiten die erreferentzia, ez jasangarritasunaren kontzeptu orokorrago bati, eta hori mugatutzat eta anbizio txikikotzat jotzen da.

Azken batean, erakunde publiko guztiek beren jardueraren eta eskumenen esparruan ondasunen eta energiaren ekoizpena eta kontsumoa murriztea proposatzen duten estrategia planifikatuak baliatu behar dituzte, ekonomia planetaren mugekin orekatzeko. Horretarako, Nafarroan funtsezkoa da desazkunde-politikei buruzko foru-estrategia garatzea.

Erabaki-proposamena

Nafarroako Parlamentuak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen da desazkunde-politikei buruzko foru-estrategia gara dezan 12 hilabeteko epean.

Iruñean, 2026ko otsailaren 26an

Foru-parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-26/MOC-00046. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru-erkidegorako ordainsari-berdintasunari buruzko estrategia integrala taxutu eta onets dezan gehienez ere sei hilabeteko epean

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru-erkidegorako ordainsari-berdintasunari buruzko estrategia integrala taxutu eta onets dezan gehienez ere sei hilabeteko epean.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Jarraipena Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean egingen da.

Zioen azalpena

Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala Nafarroak berdintasunaren arloan duen erronka nagusietako bat da oraindik. Soldata Egiturari buruzko 2023ko Inkestaren azken datu ofizialen arabera, Nafarroak du Espainiako soldata-arrakalarik handiena (% 20,68); Asturiasekin batera, % 20tik gorakoa duen bakarra da, eta, gainera, arrakala aurreko urtearekin alderatuta handitu den erkidego bakanetako bat da.

Datu hori ezin da bera bakarrik hartu: enplegua lortzeari, sustapenari, lan feminizatuen balorazioari eta emakumeen enpleguaren kalitateari eragiten dien egiturazko desberdinkeria islatzen du. UGTk berak adierazi du desberdintasun horiek beste faktore batzuekin lotuta daudela: lanaldi partzialaren prekarizazioa, segregazio sektoriala eta emakumeen lanaren gutxiespena.

Nafarroan, 2025-2028ko aldirako Enplegu Planak berdintasunarekin lotutako neurri batzuk jasotzen ditu –berdintasun-planak, ordainsari-auditoretzak, segregazioari eta zainketei buruzko ekintzak, berdintasun-agentearen figura–, baina ez da ordainsari-berdintasunerako estrategia espezifiko bat, bai zik eta sakabanatutako ekintza-multzo bat.

Egungo egoerak erakusten du neurri horiek, beharrezkoak izan arren, ez direla joera iraultzeko aski. Horregatik, ezinbestekoa da Nafarroak aurrerapauso bat ematea eta soldata-desberdintasunari eraginkortasunez aurre egiteko ikuspegi integral bat hartzea.

Premiazkoa da gure erkidegoak Ordainsari Berdintasunerako Estrategia Integrala izatea, Europako gomendioekin bat datorrena, egiturazko kausei helduko diena eta neurri espezifikoak hartuko dituen lanpostuen balorazioan, soldata-gardentasunean, segregazioan, zaintzan, prestakuntzan, berrikuntzan, negozioazio kolektiboan eta politika publikoetan.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak:

1. Nafarroako Gobernua premiatzen du taxutu eta onetsi dezan, gehienez ere sei hilabeteko epean, Foru Komunitatearentzako Ordainsari Berdintasunerako Estrategia Integrala.

2. Nafarroako Gobernua premiatzen du Parlamentuan urtero jarraipen-txosten bat aurkez dezan, datu, aurrerapen eta neurri zuzentzaileekin.

Iruñean, 2026ko otsailaren 26an

Foru-parlamentaria: Maribel García Malo

11-26/MOC-00029. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehenbailehen eska dezan Nafarroa sartzea su-gorriaren kontrako bakteriofagoen salbuespeneko baimenean eta fruta pipitadunerako talka-planean

MOZIOA ERRETIRATZEA

2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen eska dezan Nafarroa sartzea su-gorriaren kontrako bakteriofago-

en salbuespeneko baimenean eta fruta pipitadunerako talka-planean. Mozioa 2026ko otsailaren 20ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00028. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako familiak animatzen baititu seme-alabak hezkuntza-sare publikoan matrikulatu ditzaten, sare horretako edozein hizkuntza-eredutan matrikulatu ere, 2026-2027 ikasturterako aurreinskripzioa eta matrikula egiteko heldu den prozesuan

HEZKUNTZA BATZORDEAK EZETSI DU

2026ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak ezetsi egin du Carlos Pérez Guzmán jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako familiak animatzen baititu seme-alabak hezkuntza-sare publikoan matrikulatu ditzaten, sare horretako edozein hizkuntza-eredutan matrikulatu ere, 2026-2027 ikasturterako aurreinskripzioa eta matrikula egiteko heldu den prozesuan. Mozioa 2026ko otsailaren 20ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-26/POR-00089. Galdera, Europar Batasunarekin Lotutako Gaietarako Konferentziaren azken Osoko Bilkurari buruzkoa*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Europar Batasunarekin Lotutako Gaietarako Konferentziaren azken Osoko Bilkurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Ollo Hualde andreak:

Ia lau urtez bildu gabe egon ondoren, joan den asteen, Kanpo Arazoetako Ministerioak Europar Batasunarekin lotutako Gaietarako Konferentziaren osoko bilkura deitu zuen. Aztertu beharreko gaien artean, badago bat bereziki garrantzitsua dena Nafarroarentzat, Europan ahotsa duen eskualdea den aldetik.

Horregatik, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari galdetzen diogu: zer balorazio egiten duzu Europar Batasunarekin lotutako Gaietarako Konferentziaren azken bileraz?

Iruñean, 2026ko otsailaren 19an

Foru-parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-26/PES-00063. Galdera, Nafarroan dauden eta Estatuaren jabetzakoak diren etxebizitzetarako buruz Zorua Enpresa Entitate Publikoak emandako txostenari buruzkoa*MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Nafarroan dauden eta Estatuaren jabetzakoak diren etxebizitzetarako buruz Zorua Enpresa Entitate Publikoak emandako txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Zoruaren Enpresa Entitate Publikoaren txostenean, "Agindu tekniko partikularren plegua, errentamendu ordainerrazeko etxebizitza-parkearen kudeaketa integralaren kontratua" izenekoan, egiten den aurreikuspenaren arabera, Nafarroan 15 etxebizitza bideratuko dira errentamendu ordainerrazeko etxebizitza-parke horretara. Pleguak xede du errentamendu ordainerrazeko etxebizitza-parkera bideratzen diren Zoruaren Enpresa Entitate Publikoaren jabetzapeko higiezinak kudeatzeko zerbitzuak kontratatzea.

Halaber, dokumentu horren I. eranskinean adierazten da ez dagoela etxebizitzaren zerrenda itxirik; izan ere, «transferigarritasun-baldintzak lortu ahala gehituko zaizkio parkeari», eta gutxi gorabeherako zenbatespen hori ez da loteslea.

Beraz, txostenak ez du zehazten etxebizitza horiek Nafarroan zehatz-mehatz non dauden, ezta haien egoera juridikoa, teknikoa edo egiaz erabilgarri dauden ere, eta ez du baztertzen higiezin gehigarri gehiago erantsi ahal izatea.

Etxebizitza errentamendu ordainerrazeko parkean sartzeko interes publikoa duenez, jakin beharra dago aktibo horiek Nafarroan zertan diren zehazki.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

1. Nafarroako zein udalerritan daude zehazki Zoruaren Enpresa Entitate Publikoaren txosteneko 60. orrialdean aipatutako 15 etxebizitzak?

2. Zein da etxebizitza horien egungo egoera juridikoa?

3. Noizko aurreikusten da horiek alokairuan egiaz jarri ahal izatea?

4. Izan al du Nafarroako Gobernuak bilerarik edo komunikaziorik Zoruaren Enpresa Entitate Publikoarekin Nafarroan kokatutako etxebizitzaren kudeaketa edo koordinazioa dela-eta? Erantzuna baiezkoa bada, zein izan da elkarrizketa horien emaitza?

5. Txostenak berariaz adierazten duenez ez dagoela zerrenda itxirik eta perimetroa gutxi gorabeherakoa dela, Nafarroako Gobernuak ba al du Zoruaren Enpresa Entitate Publikoak kudeatzen duen Estatuko parkean Nafarroako etxebizitza gehiago sartzeko aukerari buruzko ziurtasunik?

6. Erantzuna baiezkoa bada, zenbat etxebizitza gehigarri sar litezke eta zein udalerritan?

7. Aurreikusita al dauka Nafarroako Gobernuak formalki eskatzea Zoruaren Enpresa Entitate Publikoari Nafarroan dauden Estatuaren titulartasuneko etxebizitzak lagatzeko, NASUVINSak kudea ditzan, etxebizitzaren foru-araudiarekin eta Nafarroan indarrean dauden modulu ekonomikoekin bat etorritz, horrela bermatuz Nafarroako parke publikoan integratuko direla?

Iruñean, 2026ko otsailaren 19an

Foru-parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-26/PES-00064. Galdera, Leitza Udalerriko Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuaren Erregistroko datuei buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Leitza Udalerriko Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuaren Erregistroko datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeari buruzko 2025eko urteko txostenak, Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroko datuetatik abiatuta eginak, zonaldeen arabera informazio agregatua ematen du, udalez udal behar adina desagregatu gabe, eta, beraz, ezin da zehaztasunez aztertu alokairu-merkatuak udalerriri zehatz batean izandako bilakaera.

Leitzako alokairu-merkatuaren egoera espezifikoa ezagutzeko, honako galdera hauek egiten ditugu:

1. Etxebizitzen zenbat errentamendu-kontratu erregistratu dira Leitzako udalerrian 2024an eta 2025ean (datuak urtez urte xehakatu), Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroko datuen arabera?

2. Kontratu horietatik, zenbat dagozkio ohiko etxebizitzari eta zenbat sasoiko errentamendu-kontratuei?

3. Zein izan da alokairuaren hileko batez besteko prezioa Leitzan 2024an eta 2025ean?

4. Zein izan da 2024an eta 2025ean erregistratutako kontratuen metro koadroko batez besteko prezioa?

5. Zein izan da urte horietan alokatutako etxebizitzaren batez besteko azalera?

Iruñean, 2026ko otsailaren 19an

Foru-parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-26/PES-00065. Galdera, Antxon Alonsorekin eta Justo Vicente Pelegrinirekin 2020ko urriaren 20an izandako bileran hartutako oharrei buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Antxon Alonsorekin eta Justo Vicente Pelegrinirekin 2020ko urriaren 20an izandako bileran hartutako oharrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Hiri Zirkularraren proiektuari buruzko honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Nafarroako Gobernuko lehendakariak gordeta al ditu 2020ko urriaren 20an Antxon Alonsorekin eta Justo Vicente Pelegrinirekin egindako bileran hartutako oharrak?

2. Zertaz hitz egin zuten zehazki Chivite lehendakariak, Antxon Alonsok eta Justo Vicente Pelegrinik proiektu horri buruz 2020ko urriaren 20an egin zuten bileran?

Iruñean, 2026ko otsailaren 24an

Foru-parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-26/PES-00066. Galdera, Nafarroako Gobernuaren Turismo Zuzendaritza Nagusiaren turismo-jardueretako langile ofizialen erreklamazioei buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren Turismo Zuzendaritza Nagusiaren turismo-jardueretako langile ofizialen erreklamazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Nafarroako Gobernuaren Turismo Zuzendaritza Nagusiaren turismo-jardueretako langile ofizialen erreklamazioei buruzko honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak zer balorazio egiten du langile horiek soldata- eta lanbide-parekatzearen arloan planteatutako aldarrikapenei buruz?

2. Izan al duzue bilerarik haiekin?

3. Departamentuak aintzat hartuko al ditu erreklamazio horiek?

4. Departamentuak zer neurri hartuko du egoera hori konpontzearen?

Iruñean, 2026ko otsailaren 24an

Foru-parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/ACOP-00007. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak herritarrek gonbidatzen ditu martxoaren 8a dela-eta antolatzen diren ekimenetan parte hartzera.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak konpromisoa hartzen du feminismoaren lorpen historiko-
ei eta eguneroko bizitzan duten inpaktuari balioa ematen dieten sentsibilizazio- eta komunikazio-
ekintzak sustatzeko, hartara lagunduta herritarrak informatuta egotea eta kritikoak izatea diskurtso antifeministen aurrean.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak aitortzen du berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza funtsezko tresna dela desber-

dinkeriak eta indarkeriak prebenitzeko, batez ere gazteen artean, betiere teoria eta historia feministari balioa emanaz.

4. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak mugimendu feministaren eta elkarteen lana aitortu eta babesten du, eta hark kohesio sozialari, justiziarri eta demokraziari historian zehar eta gaur egun egindako ekarpena baloratzen du.

5. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak erabaki du martxoaren 8an bere egoitzako fatxada kolore morez argizatzea.

Bigarrena:

Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

